



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

## Kalitate-teknikariaren azterketa

**1. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak 16. artikuluan jasotzen duenez:**

- a) Arriskuen ebaluazioa urtero berrikusi behar da.
- b) Arriskuen ebaluazioa gutxienez 5 urtean behin berrikusi behar da.
- c) Arriskuen ebaluazioa berrikusi behar da, hasierako lan baldintzetako batzuk aldatu direnean edo araudi espezifikoren batek hala eskatzen duenean.
- d) Ez dago arriskuen ebaluazioa berrikusteko betebeharririk.

**2. Aginte taula integraleko lau ikuspegietatik zeinetan agertzen dira «Langileen gogobetetzea» eta «Informazio sistemen eskuragarritasuna» adierazle generikoak?**

- a) Pertsonak.
- b) Formakuntza.
- c) Formakuntza eta hazkundera.
- d) Pertsonengan lortutako emaitzak.

**3. UNE-ES ISO 14001:2015 arauan (ingurumen kudeaketako sistemak), zein terminotan sartzen dira ondorengo etapa hauek?: lehengaiak eskuratzea, diseinua, ekoizpena, garraioa/entrega, erabilera, bizitzaren amaierako tratamendua eta azken xedapena.**

- a) Bizi-zikloa
- b) Ingurumen prozesua
- c) Ingurumen baldintzak
- d) Ingurumen zikloa

**4. Ondorengo aukeretako hauetatik, zein da Kaplanek eta Nortonek estrategia ezartzeko aipatzen dituzten lau oztopoetako bat?**

- a) Interes taldeen babesik eza.
- b) Ikuspegi eta estrategia prozesaezina.
- c) Gaitasunaren bilakaera ez ezagutzea.
- d) Ingurunean izandako aldaketa erradikalak.

**5. Zer laginketa motari dagokio prozedura hau?: 1) Biztanleriako banako bakoitzari zenbaki bat esleitzen zaio, eta 2) bitarteko mekanikoren baten bidez (ausazko zenbakien taulak, ordenagailuz sortutako ausazko zenbakiak, etab.), eskatutako lagin tamaina osatzeko behar adina subjektu aukeratzen dira (n).**

- a) Ausazko laginketa geruzatua.
- b) Ausazko laginketa bakuna.
- c) Ausazko laginketa sistematikoa.
- d) Konglomeratu bidezko ausazko laginketa.

**6. UNE EN 14001:2015 arauan (ingurumen kudeaketako sistemak), barne auditoriako programari dagokionez, honako hau adierazten da: «Organizazioak barne auditoriako programa bat edo batzuk ezarri, inplementatu eta mantendu behar ditu, honako hauek barnean hartuta:**

- a) barne auditorien maiztasuna, metodoak, erantzukizunak, plangintza eskakizunak eta txostengintza.»
- b) jardueren kronograma, prozedura, parte hartzaileak eta horiei lotutako adierazleak.»
- c) prozedura eta plangintza, auditorien eta segimendu txostenen kopurua, adierazleak.»
- d) jarduketan egutegia, parte hartzaileak, segimendu txostenak eta lan prozedura.»

**7. Datuak biltzeko zein teknikak ditu honako eragozpen hauek?: *Ez du luzea izan behar, elkarrizketatua beldurgarria izan ez dadin. Ez du galdera konplexuegirik onartzen. Gaitzespen potentziala, ezusteko negatiboagatik edo ordutegi pribatuan edo desegokian sartzeagatik. Estalduraren alborapen posiblea.***

- a) Elkarrizketa pertsonala.
- b) Autoadministratua, papereko postaren bidez.
- c) Telefono bidezko elkarrizketa.
- d) Autoadministratua, posta elektronikoaren edo web orri baten bidez.

**8. UNE ES ISO 14001:2015 arauan (ingurumen kudeaketako sistemak), zein terminori dagokio ondorengo definizio hau?: «Erabaki edo jarduera bati eragin diezaiokeen, erabaki edo jarduerak eragin diezaiokeen edo eragin diezaiokeela hauteman dezakeen pertsona edo erakundea.»**

- a) Ingurumen alderdia.
- b) Alderdi interesduna.
- c) Eragindako alderdia.
- d) Eragindako ingurumen entea.

**9. Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua araberan, nori dagokio osasun publikoa prebentzio-neurrien eta osasun-prestazio eta -zerbitzuen bidez antolatu eta babesteko eskumena?**

- a) Botere publikoei.
- b) Botere pribatuei.
- c) Botere publiko eta pribatuei.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**10. Erakunde baten ingurumen politikari dagokionez, UNE ES ISO 14.0001: 2015 arauari jarraituz, zer egin behar da? Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Informazio dokumentatu gisa mantendu behar da; erakundearen barruan komunikatu; alderdi interesdunentzat eskuragarri eduki.
- b) Goi zuzendaritzatik ezarrita egon behar du; eskuragarri egon behar du, behar diren auditoria guztietan; sektoreko erakundeentzat garrantzitsuak diren helburuak barne hartu behar ditu.
- c) Interes taldeekin adostuta egon behar du; goi zuzendaritzak onartuta egon behar du; alderdi interesdun guztiei komunikatu behar zaie.
- d) Aurreko hiru erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**11. UNE EN 14001:2015 arauan (ingurumen kudeaketako sistemak), «Erakundeko rolak, erantzukizunak eta autoritateak» atalean, rol eta erantzukizun espezifikoak...**

- a) pertsona bati esleitu dakizkioke, eta pertsona horri «zuzendaritzaren ordezkaria» deritzo sarritan.
- b) hainbat pertsonaren artean partekatu daitezke.
- c) goi zuzendaritzako kide bati esleitu dakizkioke.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**12. UNE EN ISO 9001:2015 arauan (kalitate kudeaketako sistemak: eskakizunak), adierazten dira nazioarteko arau horretan oinarritutako kalitate kudeaketako sistema bat ezartzeak organizazio batentzat ekar ditzakeen onurak. Zein dira aipatzen dituen onura potentzial horiek?**

- a) Organizazio bateko kalitate sistemen egitura uniformizatzea.
- b) Organizazio baten kalitate kudeaketako sistema nazioarteko arau honen egiturarekin lerrokatzea.
- c) Interes taldeen beharrei eta itxaropenei erantzuteko aukerak ematea.
- d) Bezeroaren eskakizunak eta aplikatzekoak diren legezko eta arauzko eskakizunak betetzen dituzten produktuak eta zerbitzuak erregulartasunez emateko gaitasuna.

**13. Arriskueta oinarritutako pentsamoldeari lotuta UNE EN ISO 9001:2015 arauak dakartzan eskakizunekin bat etortzeko, zer egin behar du organizazio batek? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Arriskuak eta aukerak lantzeko ekintzak planifikatu eta inplementatu.
- b) Arriskuak identifikatu eta kontingentzia planak garatu.
- c) Zehaztu zer den arriskua organizazioarentzat, eta ebaluatu zer eragin izan dezakeen.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**14. UNE EN ISO 9001:2015 arauaren arabera, organizazioak informazio dokumentatua izan behar du, bere prozesuen operazioa laguntzeko, ...**

- a) ...funtsezko prozesu guztietan.
- b) ...beharrezkoa den neurrian.
- c) ...prozesu estrategikoetan.
- d) Aurreko hiru erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**15. UNE EN ISO 9001:2015 arauan honako hau adierazten da: «Organizazioak kalitate helburuak ezarri behar ditu kalitatea kudeatzeko sistamarako beharrezkoak diren funtzio, maila eta prozesuetarako». Eta adierazten da kalitatearen helburuek honelakoak izan behar dutela:**

- a) Kalitate politikarekiko koherenteak; neurgarriak; eta segimendua egin behar zaie.
- b) Neurgarriak; egonkorak; eta erakundearen estrategiarekiko koherenteak.
- c) Goi zuzendaritzak onartuak; ebaluagarriak; eta bezeroek ezagunak.
- d) Estrategiarekiko koherenteak; neurgarriak; eta behar denean eguneratzeko modukoak.

**16. UNE EN ISO 14001:2015 arauan (ingurumen kudeaketako sistemak), «behar luke» edo «behar litzateke» aditza erabiltzen denean, zer adierazten da? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Betebehar bat adierazten da.
- b) Betekizun bat adierazten da.
- c) Gomendio bat adierazten da.
- d) Aurreko hiru erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**17. Zer balorazio eskalak ebaluatzen du adierazpen batekiko adostasun maila?**

- a) SIMALTO eskalak.
- b) Eskala diferentzial semantikoak.
- c) Likert eskalak.
- d) Eskala kualitatiboak.

**18. UNE EN ISO 9001:2015 arauan, hau adierazten da: «Bezeroei eskainiko zaizkien produktu eta zerbitzuetarako eskakizunak zehazten direnean, organizazioak ziurtatu behar du...»**

- a) ...produktu eta zerbitzuetarako betekizunak definitzen direla, aplikatzekoa den legezko eta erregelamenduzko edozein betekizun barne».
- b) ...produktu eta zerbitzuetarako baldintzak definitzen direla, organizazioak beharrezkotzat jotzen dituenak barne».
- c) ...organizazioak bete ditzakeela eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuei buruzko adierazpenak».
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

**19. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubide eta Betebeharrei buruzko Adierazpenari buruzko 147/2015 Dekretuaren 1. artikulua araberako, dekretu horren xedea hau da:**

- a) Indarrean dagoen legeriaren esparruan, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena osatzen duten eskubide eta betebeharren multzoa zehaztea.
- b) Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena osatzen duten eskubideen multzoa bakarrik zehaztea.
- c) Indarrean dagoen legeriaren esparruan, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena osatzen duten betebeharren multzoa soilik zehaztea.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**20. Zein hiru printzipiok ahalbidetzen dute organizazio baten aginte taula integrala bere estrategiari lotuta egotea?**

- a) Kausa-efektu erlazioek; emaitzekiko loturak; eta inguruneko baldintzatzaileek.
- b) Kausa-efektu erlazioek; jarduketaren eragileek; eta finantzekiko loturak.
- c) Emaitzekiko loturak; kausa-efektu erlazioek; eta jardueraren eragileek.
- d) Finantzekiko loturak; kausa-efektu erlazioek; eta organizazioaren gaitasunek.

**21. Ondorengo esaldietatik, zein da zuzena Kaplanen eta Nortonen arabera? *Aginte koadroa estrategia baten adierazpentzat hartzen denean, aginte koadroak daukan adierazle kopurua...***

- a) *...funtsezkoa bihurtzen da; izan ere, 25 adierazle baino gehiago ezin dira behar bezala kudeatu aginte taula integral batean.*
- b) *...bigarren mailako zerbait bihurtzen da; izan ere, garrantzitsuena da organizazioarentzat estrategikoak diren adierazle guztiak egotea.*
- c) *...aukerakoa bihurtzen da; izan ere, aginte taula integralaren lau ikuspegiak finkatzeko moduaren arabera izango da.*
- d) *...garrantzirik gabea bihurtzen da; izan ere, aginte taula integraleko adierazle ugariak lotuta daude negozio unitatearen estrategia deskribatzen duen kausa-efektu sare baten bidez.*

**22. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren Legegintzaldiko Oinarrien eta Lan Planaren dokumentuak, diagnostikoari dagokionez, zehazten du indartu beharra dagoela**

- a) hazkunde orekatua.
- b) garapen iraunkorra.
- c) sareko lan global bat.
- d) gizarte kontratuko kultura bat.

**23. Zein da garapen jasangarriko helburuei buruzko ekintzaren hamarkadarako irizpide gidaria?**

- a) Proaktibitatea.
- b) Erresilientzia.
- c) Garapen jasangarria.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**24. Adieraz ezazu, garapen jasangarriko 17 helburuetatik, zein diren «Planeta» esferan sartuta dauden hiru:**

- a) Hazkunde ekonomikoa eta enplegua; klima aldaketa; ekosistemak.
- b) Klima aldaketa; ura eta saneamendua; itsas baliabideak.
- c) Ura eta saneamendua; berotze globala; itsas baliabideak.
- d) Ekosistemak; energia; klima aldaketa.

**25. Garapen jasangarriko 17 helburuetatik, zeini dagokio Eusko Jaurlaritzak ezarritako jomuga hau?: Euskadiko turismo jardueran bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea.**

- a) Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.
- b) Industria, berrikuntza eta azpiegitura.
- c) Hiri eta komunitate jasangarriak.
- d) Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

**26. Garapen jasangarriko 17 helburuetatik, zeini dagokio Eusko Jaurlaritzak ezarritako adierazle hau?: Biztanle etorkinen enplegu tasa.**

- a) Pobrezia desagerraraztea.
- b) Bakea, justizia eta erakunde sendoak.
- c) Desberdintasunak murriztea.
- d) Hiri eta komunitate jasangarriak.

**27. Zein dira Kaplanek eta Nortonek aginte taula integrala kudeaketa estrategikoko sistema gisa eraiki eta ezartzerakoan identifikatu dituzten hiru rol garrantzitsuenak?**

- a) Liderra, perspektibaren arduraduna eta barne auditorea.
- b) Bultzatzailea, prozesuko liderra eta segimenduaren arduraduna.
- c) Arkitektoa, aldaketaren eragilea eta komunikatzailea.
- d) Aldaketaren eragilea, perspektibaren arduraduna eta controller.

**28. Zenbat elementu eta azpielementu ditu 2018ko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduak?**

- a) 6 elementu eta 23 azpielementu.
- b) 6 elementu eta 22 azpielementu.
- c) 5 elementu eta 23 azpielementu.
- d) 5 elementu eta 22 azpielementu.

**29. Zer eskaintzen du 2018ko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduak? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Elementuen eta praktika egokien esparru orokor bat eskaintzen du, eta horiek edozein erakunde pribatutan aplikatu daitezke (ez zaizkio aplikagarriak Administrazio publikoari), edozein dela ere haren tamaina eta kudeaketako aurrerapen maila.
- b) Elementuen eta praktika egokien esparru orokor bat eskaintzen du, eta horiek kudeaketa maila aurreratua duen edozein erakundetan aplikatu daitezke, edozein dela ere erakundearen sektorea eta tamaina.
- c) Elementuen eta praktika egokien esparru orokor bat eskaintzen du, eta horiek edozein erakundetan aplikatu daitezke, edozein dela ere erakundearen sektorea, tamaina eta kudeaketako garapen maila.
- d) Elementuen eta praktika egokien esparru orokor bat eskaintzen du, eta horiek 50 langile baino gehiagoko edozein erakundetan aplikatu daitezke, edozein dela ere erakundearen sektorea eta kudeaketako garapen maila.

**30. OSATEKen Hitzarmen Kolektiboaren 8. artikulua arabera, gaueko orduaren balioa honako hau da:**

- a) Ordu arruntaren gaineko %150.
- b) Ordu arruntaren gaineko %175.
- c) Ordu arruntaren gaineko %137,5.
- d) Ordu arruntaren gaineko %160.

**31. 2018ko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan, non hitz egiten da esplizituki pertsonen motibazioaz?**

- a) «Estrategia» eta «Pertsonak» elementuetan. Eta «Pertsonak» elementuaren barruan, P3 atalean.
- b) «Pertsonak» elementuan. Eta «Pertsonak» elementuaren barruan, P3 atalean.
- c) «Pertsonak eta berrikuntza» elementuan.
- d) Elementu eta azpielementu guztietan dago pertsonen motibazioari buruzko atalen bat.

**32. Zein dira aginte taula integralaren lau ikuspegiak?**

- a) Finantzak, bezeroak, barne prozesuak, formakuntza eta hazkundea.
- b) Finantzak, prozesuak, pertsonetan lortutako emaitzak eta formakuntza.
- c) Formakuntza eta hazkundea, bezeroak, prozesuak eta baliabideak.
- d) Bezeroak, prozesuak, finantza baliabideak eta formakuntza.

**33. ISO 45001 arauaren (laneko segurtasuna eta osasuna [LSO] kudeatzeko sistemak) arabera, LSO kudeatzeko sistema bat ezartzea eta mantentzea, haren eraginkortasuna, eta aurreikusitako emaitzak lortzeko haren gaitasuna funtsezko hainbat faktoreren mende daude. Besteak beste, faktore hauek aipatzen ditu arauak:**

- a) Arriskuak identifikatzeko, LSOko arriskuak kontrolatzeko eta LSOko aukerak aprobetxatzeko prozesu eraginkorrak; lege eskakizunak eta bestelako eskakizunak betetzea; 0 arriskua bermatuko duen lidergo autoritarioa.
- b) Lidergoa, konpromisoa, erantzukizunak, eta goi zuzendaritzaren kontu-ematea; komunikazioa; arriskuak identifikatzeko, LSOko arriskuak kontrolatzeko, eta LSOko aukerak aprobetxatzeko prozesu eraginkorrak.
- c) LSOaren kudeaketa sistemaren segimendua eta jardunaren etengabeko ebaluazioa, LSOaren jarduna hobetearren; LSOaren kudeaketa sistema erakundearen negozio prozesuetan integratzea; hornitzaileen parte hartzea, hartu beharreko neurriei buruzko erabakiak hartzean.
- d) Goi zuzendaritzaren lidergoa, konpromisoa, erantzukizunak eta kontu-ematea; langileen kontsulta eta parte hartzea, eta, halakorik dagoenean, langileen ordezkariena; eta ekintza planaren urteko jakinarazpena, administrazio autonomiko eskudunari.

**34. 2018ko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, kudeaketa alderdi batek nolabaiteko egitura duten kudeaketa jardunbideak erakusten baditu, integratzen eta hobetzen hasita, kudeaketa alderdi hori honako hau dela esango genuke:**

- a) Oinarrizkoa.
- b) Tartekoa.
- c) Garatua.
- d) Aurreratua.



**35. 2030 Agendak, hitzaurrean, bere 17 helburuen edukia laburbiltzen du gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoa duten bost esferatan, eta Eusko Jaurlaritzak berezkitzat hartu ditu bere gobernu programan. Adieraz itzazu bost esferak:**

- a) Pertsonak, planeta, hazkunde orekatua, berdintasuna, bakea.
- b) Pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea, lankidetzak.
- c) Garapen jasangarria, ingurumena, herritarrak, sareko lana eta gatazkarik eza.
- d) Planeta, bakea, pertsonak, hazkunde jasangarria, berdintasuna.

**36. 2018ko Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren emaitzak baloratzeko taularen arabera, baldin joerak edo adierazleen errendimendu operatiboa egokiak badira gutxienez azken 3 urtean gutxienez datuen % 75ean, joerei balorazio maila hau emango genieke:**

- a) Oinarrizkoa.
- b) Oinarrizkoa edo tartekoa.
- c) Tartekoa.
- d) Garatua edo aurreratua.

**37. Osasun Sailaren 2021-2024 marko estrategikoan, elikadura osasungarriaz hitz egiten al da?**

- a) Ez da elikadura osasungarriaz hitz egiten, baina osasun fisikorako lankidetzak soziosanitarioa jasotzen da.
- b) 2. elementua (integrazioa, herritarren eskura dagoen osasunarekin batera) delakoaren barruan.
- c) 3. elementua (osasun publikoa, osasun fisikoarekin eta sexu eta ugalketa osasunarekin batera, besteak beste) delakoaren barruan.
- d) 6. elementua (ekitatea, oinarrizko beste baliabide batzuk eskuratzearekin batera) delakoren barruan.

**38. 2018ko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan, non aipatzen da produktuak eta zerbitzuak nola diseinatzeko, garatzeko, merkaturatzeko, ekoizten eta banatzen diren?**

- a) «Estrategia» elementuan.
- b) «Bezeroak» elementuan.
- c) «Pertsonak» elementuan.
- d) «Berrikuntza» elementuan.

**39. Osasun Sailaren 2021-2024 marko estrategikoan, «doitasunezko medikuntza pertsonalizatua» aipatzen al da?**

- a) Ez, alderdi hori ez da aipatzen 2021-2024 marko estrategikoan.
- b) Bai, 5. elementua (I+G+b osasunean) delakoaren barruan, ikertu beharreko lehentasunezko alderditzat.
- c) Bai, 3. elementua (osasun publikoa, eta ingurune eta bizimodu osasungarriak sustatzea) delakoren barruan.
- d) Bai, 1. elementua (Euskal Osasun Sistema, irisgarritasuna, humanizazioa eta beste gai batzuk) delakoaren barruan.

**40. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, zein dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Euskadiko herri aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak?**

- a) 15 hauek dira: tratu berdintasuna, eta ikuspegi interseksionala txertatzea; aukera berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; sexu identitatea eta/edo generokoa eta sexu orientaziokoa eta sexu eta ugalketa eskubideak askatasunez garatzeko eskubidea, pertsonen eskubide horiek baliatzeko unean duten erabaki askea bermatuz; genero ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkari itza orekatua; lankidetzeta eta koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea; gizonen inplikazioa; parte hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea; hizkuntza eskubideen babesa eta euskararen erabileraren sustapena.
- b) 10 hauek dira: tratu berdintasuna, eta ikuspegi interseksionala txertatzea; aukera berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; sexu identitatea eta/edo generokoa eta sexu orientaziokoa eta sexu eta ugalketa eskubideak askatasunez garatzeko eskubidea, pertsonen eskubide horiek baliatzeko unean duten erabaki askea bermatuz; genero ikuspegiaren integrazioa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkari itza orekatua; lankidetzeta eta koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea.
- c) 12 hauek dira: tratu berdintasuna, eta ikuspegi interseksionala txertatzea; aukera berdintasuna; emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; sexu identitatea eta/edo generokoa eta sexu orientaziokoa eta sexu eta ugalketa eskubideak askatasunez garatzeko eskubidea, pertsonen eskubide horiek baliatzeko unean duten erabaki askea bermatuz; genero ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; ordezkari itza orekatua; lankidetzeta eta koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea; parte hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**41. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 8. artikuluan («Erakundeak homologatzea») jasota dagoenez, beharrezkoa denean Euskadiko herri administrazioek ekimen pribatuarekin hitzarmenak egitea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eskaintzeko, kasuan kasuko herri administrazioak homologatu behar ditu zerbitzu horiek eskainiko dituzten aholkularitza enpresak eta erakundeak, ...**

- a) ...zerbitzua hasi baino hilabete lehenago gutxienez.
- b) ...hitzarmenak izenpetu aurretik.
- c) ...zerbitzua hasten denetik hilabeteko epean.
- d) Lege horretan ez dago ezer jasota erakundeen homologazioari buruz.

**42. Osasun Sailaren 2021-2024 aldirako marko estrategikoan ondorengo hauek jaso dira:**

- a) Funtsezko 3 arrazoi, eta horiek garatu eta sendotzeko 6 elementu instrumental.
- b) Funtsezko 2 arrazoi, eta horiek garatu eta sendotzeko 6 elementu instrumental.
- c) Funtsezko 2 arrazoi, eta horiek garatu eta sendotzeko 8 elementu instrumental.
- d) Funtsezko 2 arrazoi, eta horiek garatu eta sendotzeko 10 elementu instrumental.

**43. Osalanek argitaratutako *Enpresan LAP plana ezartzeko eskuliburuan* jasota dagoenez, arrisku egoera jakin bati aurre egiteko neurri egokiena zein izan daitekeen aztertzerakoan, zein izan beharko litzateke lehentasun ordena, prebentzioaren ikuspuntutik?**

- a) Babes kolektiboko neurriak, norbera babestekoak, jatorrian prebenitzekoak, antolakuntzakoak, eta langileei prestakuntza eta informazioa ematekoak.
- b) Jatorrian prebenitzeko neurriak, antolakuntzakoak, babes kolektibokoak, norbera babestekoak, eta langileei prestakuntza eta informazioa ematekoak.
- c) Norbera babesteko neurriak, babes kolektibokoak, jatorrian prebenitzekoak, antolakuntzakoak, eta langileei prestakuntza eta informazioa ematekoak.
- d) Jatorrian prebenitzeko neurriak, antolakuntzakoak, norbera babestekoak, babes kolektibokoak, eta langileei prestakuntza eta informazioa ematekoak.

**44. *Genero-ikuspegitik kudeaketari balioa emateko gida. Kudeaketa aurreratuaren eredu argitalpenak:***

- a) Zenbait erakunderen jardunbideen adibide zehatzak biltzen ditu, erreferentziatzat erabil daitezkeenak.
- b) Ez du jardunbiderik jasotzen, baina Euskaliten eta Emakunderen artean sortutako jardunbide egokien bilatzailera bideratzen du.
- c) Jardunbide egokien bilatzailean argitara daitezen beren jardunbideak bidali dituzten erakundeen jardunbideetatik 3 adibide onenak jasotzen ditu, eta gainerakoak ikusteko bilatzailera birbideratzen du.
- d) Ez du jardunbide zehatzez hitz egiten. Esparru hori oso zaila da aplikatzen, eta, beraz, oraindik ez dago erreferentzia izan daitekeen halako jardunbiderik.

**45. Zein dira Osasun Sailaren 2021-2024 aldirako Marko Estrategikoaren elementu instrumentalak?**

- a) Sistemaren integrazioa, lehen arreta, osasun publikoa, arreta soziosanitarioa, I+G+b eta irisgarritasuna.
- b) Euskal osasun sistema, lehen arreta, osasun publikoa, arreta soziosanitarioa, I+G+b eta gobernantza.
- c) Euskal osasun sistema, integrazioa, osasun publikoa, arreta soziosanitarioa, I+G+b eta ekitatea.
- d) Euskal osasun sistema, integrazioa, osasun publikoa, arreta soziosanitarioa, I+G+b eta gobernantza.

**46. UNE 66175:2003 Arauan (adierazle sistemak ezartzeko gida) adierazitakoari jarraituz, kudeaketa sistema baten adierazleak definitzen dituzten ezaugarrien artean honako hauek daude:**

- a) Neurgarriak, fidagarriak eta zehatzak izatea, baloratu nahi den kontzeptuari dagokionez.
- b) Zenbakarriak, eskuragarriak eta malguak izatea.
- c) Fidagarriak izatea, baloratu nahi den kontzeptuari dagokionez zehatzak izatea, eta jarduera garrantzitsu edo kritiko bat sinbolizatzea.
- d) Neurgarriak izatea, jarduera garrantzitsu edo kritiko bat sinbolizatzea, eta ezartzen, mantentzen eta erabiltzen errazak izatea.

**47. UNE 66175:2003 Arauak (adierazle sistemak ezartzeko gida) atal batean jasotzen du erantzukizunen definizioa. Zertaz ari da?**

- a) Zuzendaritzak aginte taulan zein adierazle egon behar duten erabakitzeke duen erantzukizunaz ari da.
- b) Adierazle bat aginte taulan sartzeko erabakia hartzean adierazle horrek eragindako pertsonen erantzukizun koordinatuaz ari da.
- c) Informazioa biltzeko, aztertzeke, ustiatzeke eta emaitzak jakinarazteke erantzukizunaz ari da.
- d) Adierazleak definitzeke, informazioa biltzeko, aztertu eta ustiatzeke, eta emaitzak jakinarazteke erantzukizunaz ari da.

**48. Zertaz ari da UNE 66175:2003 Araua (adierazle sistemak ezartzeko gida), «atalaseak» aipatzen dituenean?**

- a) Inoiz gainditu behar ez diren atalaseak: mantentzeke zailak diren adierazleak, zeinen lorpen kostua ematen duten balioaren parekoa baita; eta joerarik atera ezin zaien adierazleak.
- b) Inoiz gainditu behar ez diren atalaseak: fidagarritasun gutxikoak diren edo konfiantzarik ematen ez duten adierazleak, eta kuantifikatu ezin diren adierazleak.
- c) Lortu beharreke helburuek atalaseak zehaztera eraman dezakete; esate baterako, prozesua aldatu gabe errespetatu beharreke gutxienekoa edo gehienekoa, lortu beharreke balioa, edo denboran zehar balioen ondoz ondoko lorpena.
- d) UNE 66175:2003 Arauan ez da «atalaseak» terminoa erabiltzen.

**49. Goi Mailako Osasun Teknologia, S.A. sortzeke Dekretuaren 1. artikuluaen arabera:**

- a) Osakidetza bazkide bakarra izango da.
- b) Osakidetzak %50eko partaidetza izango du.
- c) Osakidetzak %75eko partaidetza izango du, eta Bizkaiko Foru Aldundiak %25ekoa.
- d) Osakidetzak %50eko partaidetza izango du, eta Osasun Sailak %50ekoa.

**50. Adierazle sistema ezartzerakoan, UNE 66175:2003 Arauaren arabera, adierazleak behar bezala zehazteaz gain, zer gehiago behar da?**

- a) Aginte koadroa Adierazleen Espainiako Elkartean erregistratzea, behar bezala balidatu dezaten.
- b) Pertsona egokiak sartzea planaren ezarpenean.
- c) Erakundeke pertsonen % 60k baino gehiagok partekatutako segimendua egitea.
- d) Adierazle nagusien emaitzak interes talde guztiei jakinaraztea.

## **ERRESERBAKO GALDERAK**

### **51. Osalanek argitaratutako *Enpresan LAP plana ezartzeko eskuliburuan*, fase hauek agertzen dira, lan arriskuen prebentziorako plan bat ezartzeko:**

- a) Ezarri aurreko jarduerak; planaren ezarpen formala; planaren arabera prebentzio jarduera hastea; planak enpresan duen funtzionamenduaren errutina; plana eta haren emaitzak berrikustea.
- b) Planaren ezarpen formala; planaren arabera prebentzio jarduera hastea; planak enpresan duen funtzionamenduaren errutina; plana eta haren emaitzak berrikustea.
- c) Egoeraren diagnostikoa; planaren ezarpen formala; planaren arabera prebentzio jarduera hastea; planak enpresan duen funtzionamenduaren errutina; plana eta haren emaitzak berrikustea.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

### **52. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren 6.1 artikulua arabera, zer ezaugarri izan behar ditu ukituaren baimen informatuak behar bezala eman dela ulertzeko?**

- a) Borondate-adierazpen askea izatea, eta adierazpen bidez edo baiezkoko ekintza argi baten bidez, onartzea berari datu pertsonalen tratamendua.
- b) Borondate-adierazpen aske eta espezifikoa izatea, eta, adierazpen bidez edo baiezkoko ekintza argi baten bidez, onartzea berari buruzko datu pertsonalen tratamendua.
- c) Borondate-adierazpen aske, zehatz eta informatua izatea, eta, adierazpen bidez edo baiezkoko ekintza argi baten bidez, onartzea berari buruzko datu pertsonalen tratamendua.
- d) Borondate-adierazpen aske, zehatz, informatu eta zalantzagabea izatea, eta, adierazpen bidez edo baiezkoko ekintza argi baten bidez, onartzea berari buruzko datu pertsonalen tratamendua.

### **53. *Genero-ikuspegitik kudeaketari balioa emateko gida. Kudeaketa aurreratuaren eredia argitalpenean, aipatzen al da ekologia feminista edo ekofeminismoa?***

- a) Ez; nahiz eta alderdi horretaz hitz egiten den, ez da *ekologia feminista* edo *ekofeminismo* terminoa erabiltzen.
- b) Bai, agertzen da, G.2 azpielementuan («Nola bultzatzen dugu ingurumen-jasangarritasuna?»).
- c) Bai, agertzen da, E.1 azpielementuan («Nola kudeatzen den estrategia zehazteko beharrezkoa den informazioa?»).
- d) Bai, agertzen da, P.3 azpielementuan («Nola konprometitzen ditugu pertsonak enpresarekin?»).

**54. 2018ko Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan, balorazio tauletan, zein alderdi da ebaluatzen duena ea planteamenduen eta hedapenen efikaziaren eta efizientziaren azterketa, barneko eta kanpoko ikaskuntza eta sormena erabiltzen diren sistematikoki berritzearen eta hobetzearen bai planteamenduak eta hedapenak, bai ebaluazio eta doikuntza mekanismoak berak?**

- a) Magnitudea.
- b) Hedapena.
- c) Ebaluazioa eta doikuntza.
- d) Planteamendua.

**55. Bezeroen gogobetetzea zenbatean behin neurtu behar den zehazteko orduan, erakundeak honako alderdi hauek hartu behar ditu kontuan, gutxienez:**

- a) Hornitutako produktu edo zerbitzuaren mota eta bizi zikloa; neurketa prozesuari lotutako kostuak; merkaturaren aldaketa abiadura.
- b) Bezeroen beharren eta itxaropenen aldaketak; emaitzen urgentzia; dagoen bezero unibertsoa.
- c) Aztertu beharreko bezero lagina; produktu edo zerbitzu mota; erabili beharreko neurketa metodoa.
- d) Neurketa metodoa; bezeroen beharrak eta itxaropenak; aztertu beharreko unibertsoa eta bezero lagina.

**56. ISO 45001 arauan (laneko segurtasuna eta osasuna [LSO] kudeatzeko sistemak) jasota dagoenez, LSO kudeatzeko sistema baterako informazio dokumentatuak honelakoa behar luke izan:**

- a) Ez luke 100 orrialde baino gehiago izan behar, baina luzera aldatu egin daiteke erakundearen jardueraren arabera.
- b) Antzekoa izan beharko luke erakundearen artean, nahitaezko prozeduren kopurua dela eta; eta inoiz ez litzateke izan behar 30 orrialde baino gutxiagokoa.
- c) Erakunde batetik bestera alda daiteke, honako arrazoi hauek direla kausa: tamaina; betetze maila frogatzeko beharra; prozesuen konplexutasuna; langileen gaitasuna.
- d) Erakunde batetik bestera alda daiteke, izapideak burokratizatzearen arloko enpresa kultura dela eta.

**57. Genero-ikuspegitik kudeaketari balioa emateko gida. Kudeaketa aurreratuaren eredia argitalpenean:**

- a) Genero ikuspegia kontuan hartzen da «Estrategia», «Pertsonak» eta «Gizartea» elementuetan.
- b) Genero ikuspegia kontuan hartzen da «Estrategia», «Bezeroak» eta «Pertsonak» elementuetan.
- c) Genero ikuspegia kontuan hartzen da «Bezeroak», «Pertsonak» eta «Gizartea» elementuetan.
- d) Kudeaketa aurreratuaren ereduko elementu guztiek —bai ekintzakoek, bai emaitzakoek— genero ikuspegia sar dezakete, eta gure gizartean arteko berdintasuna lortzea eta kudeaketa-eredu aurreratuagoak sortzea helburu duten jardunbideak aurkez ditzakete.

**58. Galdera sorta batean galderak idazteko Bowley arauen arabera, nolakoak izan behar dute galderek?**

- a) Nahiko gutxi izan behar dute (oro har, ez lirateke hogeit baido gehiago izan behar). Aurreiritzirik ez sortzeko moduan egin behar dira.
- b) Behar direnak izan behar dute, gaiaren konplexutasunaren arabera (oro har, 25 eta 30 artean). Ez dute diskreziorik gabeak izan behar, beharrezkoa ez bada.
- c) Galdera kopuru egokia izan behar du, norik erantzungo dituen kontuan hartuta (oro har, 20 eta 30 bitartean). Erantzun gisa zenbaki bat, baieztapen bat edo ukapen bat eskatzeko moduan egin behar dira.
- d) Gutxi izan behar dute, erantzuna errazteko (oro har, ez 15 baino gehiago), eta erantzun behar dituenaren pertzepzio sakona lortu behar dute.

**59. Osatek. S.A.-ren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lehen Planaren arabera, baliabideak honakoei zuzenduta egongo dira:**

- a) Etengabeko hizkuntza-aholkularitzari.
- b) Ordenagailuan euskaraz lan egitea ahalbideratuko duten tresnak erosi eta instalatzeari.
- c) Hizkuntza-prestakuntza eta -gaikuntzari, bai orokorrari bai berariazkoari.
- d) a, b eta c ataletako erantzun guztiak zuzenak dira.

**60. Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzko 2019ko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren aldaketa nagusietako bat zein da?**

- a) Berdintasun planak idazteko eskakizuna ehun eta berrogeita hamar langile edo gehiagoko enpresetara zabaltzea, eta plan horiek erregelamenduz garatuko den erregistroan inskribatzeko betebeharra sortzea.
- b) Berdintasun planak idazteko eskakizuna ehun langile edo gehiagoko enpresetara zabaltzea, eta plan horiek erregelamenduz garatuko den erregistroan inskribatzeko betebeharra sortzea.
- c) Berdintasun planak idazteko eskakizuna berrogeita hamar langile edo gehiagoko enpresetara zabaltzea, eta plan horiek erregelamenduz garatuko den erregistroan inskribatzeko betebeharra sortzea.
- d) Berdintasun planak idazteko eskakizuna hogeita bost langile edo gehiagoko enpresetara zabaltzea, eta plan horiek erregelamenduz garatuko den erregistroan inskribatzeko betebeharra sortzea.